

Urrutitik ekarria



Urrutira bidalia

Egilea: Li Bai

Itzultzailea: Albert Galvany & Pello Otxoteko

Argitaratze urtea: 2005

Argitaletxea: Alberdania

INMA ERREA

Kirmen Uribe poetak esana du euskaldunok kanpotik hartzen dugula gure lapiko txikian ez duguna. VIII. mendeko Li Bai poeta txinatarraren 49 poema biltzen dituen liburu hau horixe da: gure lapiko txikira urrunetik –ekialdetik– ekarritako osagai exotiko bezain gutziagarria.

49 olerki horiek lagin txikia dira, haren herrikideek poeta hilezkortzat duten Li Baik 1.100 olerki idatzi zituela kontuan hartzen. Baina lagin txikia izanagatik ere, balio handikoa da. Otxotekok eta Galvanyk Li Bairen poemak aukeratzean kontuan hartu dituzten irizpideak askotarikoak izan dira, eta horien artean aipagarri da poema batzuk Mendebaldean argitaratutako beste antologietan daudelako hautatu dituztela, eta beste zenbait, ordea, inongo antologiatan bildu ez direlako. Txinatar kulturari hain ohikoa den kontrakoaren sintesi ezin aproposagoa, inondik ere.

Behin olerkiak hautatuta, Albert Galvany sinologoak txinera klasikotik zuzenean itzuli eta Pello Otxoteko poetak forma eman die euskaraz. Horretan emandako denbora ez da txikikeria: bost urte, bost uda, Li Bairen poema eder bezain sentigarriak euskararen lapiko txikira ekartzeko, eta, Bernardo Atxagak *Hitzaurrean* dioenari jarraikiz, “proposamen poetiko berriak” eskaintzeko.

Honako hau ez da Li Bairen poemak, ezta beste txinatar poeten olerkiak ere –Du Furenak, kasu–, gurera ekartzen dituzten lehen aldia: Joseba Sarrionaindiak, Itxaro Bordak edo Rafa Egigurenek egindako itzulpenak ditugu aurrekari.

Galvanyk eta Otxotekok itzulitako poemaz bezainbatean, haien leitzeak plazer ematen du, eta jakin-mina kilikatu. Hagitz deigarri dira –eta agian ez oso zuzenak, egungo pentsamoldearen arabera– ardoari eta edateari Li Baik eskainitako poemak, horietako hiru –*Ilargipean edaten (I eta II)* eta *Bedatsean horditurik ene sentimenduak azaldu*– Sarrionaindiak aspaldi itzuliak, *Alkohola poemak* liburuan. Poema horietan agertzen ditu Li Baik bizitzari aurre egiteko dituen sinesmenetariko hainbat, eta horren adibide ditugu, kasu baterako, “Mundua amets handia bada, / zertan honenbesteko nekea? / Hortaz, egun osoa horditurik natza” edo “Ardotan baizik ez da lortzen plazera” dioten bertsoak.

Dударik gabe ikuspegi epikureoa da Li Baik jorratzen duena. Ikuspegi hori, ordea, ez da soilik islatzen ardoari eta edateari eskainitako poemetan. Izan ere, adiskidetasunaren gorazarrea egitean, natura zolitasunez deskribatzen duenean (“Mendiko loreak, musugorri; / sugarrak, ipurtargi uretan.”, “Gailur zaharrean hodei oihala zarrastatua”, “Banbu artean ez da giza hotsik entzuten, / urmael gainean ilargia alferrik dirdaitu.”...), maitasunaz mintzatzean edo boteretsuen bizimodua kritikatzeko, sentipenei eta plazerari heltzen die.

Hala ere, Li Baik askoz gauza gehiago eskaintzen digu –pentsu sakonak eta sentimendu landuak, besteak beste–, eta *Urrutira bidalia* liburuak ere bai: Li Bairen poesian barnako paseo kitzikagarriaz gain, Otxotekok eta Galvanyk Txinako poesiarren gakoak ezagutzeko egiten diguten gonbita ere profita dezakegu haren orrietan. Topak merezi baitu!